



# DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea  
Mancomunidad Comarcal

RAQUEL OLAIZOLA CORTINA ANDERENAK,  
DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEKO  
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

ZIURTATZEN DUT:

2023ko urtarrilaren 25ean egindako Gobernu Bartzordearen  
ezohiko bilkuraren honako ERABAKI hau hartu zen, bestek  
beste:

SALBUESPEN GISA EDO EZOHICO MODUAN, ORGANO  
HONEN BILKURETAN BITARTEKO TELEMATIKOEN  
BIDEZ PARTE-HARTZEA ONARTZEKO ERABAKI  
PROPOSAMENA. BIDEZKOA BADA, ONARTZEA

Presidenteak aurkeztutako erabaki proposamenaren berri  
eman da; hain zuzen ere, salbuespen gisa eta ezohiko  
moduan, organo honen bilkuretan parte hartzeko bide  
telematikoak onartzea proposatu du Presidenteak. Jarraian  
transkribatzen den proposamena aho batez onartu dute  
bilkurara etorritako batzordekideek.

Azaldutakoa dela eta, presidenteak honako ERABAKI hau  
onartutzat eman du:

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen Gobernu  
Batzordeak bere estatutuetan eta tokiko araubideari,  
sektore publikoaren araubide juridikoari eta administrazio  
prozedura erkideari buruzko araudian ezarritakoaren bidez  
arautzen ditu bere antolamendua eta funtzionamendua.

Aztertu behar da ea aipatu araudietan Mankomunitate  
honen Gobernu Bartzordearen bilkura telematikoak edo  
mistoak egitea aurreikusten duen punturik dagoen.

Horri dagokionez, Gobernu Batzordeak 2020ko martxotik  
egin zituen bilkura mistoak, aurrez aurrekoak eta  
telematikoak, horretarako apirilaren 2ko Toki Araubidearen  
Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 46.3 artikuluan  
xedatutakoa baliatuz, artikulua horrek baimentzen baitu bide

DÑA. RAQUEL OLAIZOLA CORTINA, SECRETARIA-  
INTERVENTORA DE LA MANCOMUNIDAD  
COMARCAL DE DEBABARRENA,

CERTIFICO:

Que en la sesión extraordinaria de la Comisión de  
Gobierno, celebrada el día 25 de enero de 2023, se  
adoptó, entre otros, el siguiente ACUERDO:

PROPUESTA DE ACUERDO DE APROBACIÓN DE  
LA PARTICIPACIÓN TELEMÁTICA EN SESIONES DE  
ESTE ÓRGANO, CON CARÁCTER EXCEPCIONAL O  
EXTRAORDINARIO. APROBACIÓN, SI PROCEDE

Se da cuenta de la propuesta de acuerdo, emitida por  
el Presidente, de aprobación de la participación  
telemática en sesiones de este órgano, con carácter  
excepcional o extraordinario, que se transcribe a  
continuación, siendo aprobada por la unanimidad de  
miembros asistentes al acto.

Por lo expuesto, el Presidente declara aprobado el  
siguiente ACUERDO:

La Comisión de Gobierno de la Mancomunidad  
Comarcal de Debabarrena, regula su organización y  
funcionamiento por lo establecido en sus estatutos,  
además de en la normativa de régimen local, de  
régimen jurídico del sector público y procedimiento  
administrativo común.

Procede analizar si en la citada normativa hay previsión  
que ampare la celebración de sesiones telemáticas o  
sesiones mixtas de la Comisión de Gobierno de esta  
Mancomunidad.

A este respecto, la Comisión de Gobierno, ha venido  
celebrando sesiones mixtas, presenciales y  
telemáticas, desde marzo de 2020, amparándose para  
ello en lo dispuesto en el Art. 46.3 de la Ley 7/85, de 2  
de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local, que



# DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea  
Mancomunidad Comarcal

telematiko eta elektronikoak erabiltzea udalbatzen bilkurak egiteko eta erabakiak hartzeko; horrela jokatu da, COVID-19aren pandemiak eragindako arrisku larri kolektiboaren salbuespen egoera zela ulertu delako.

Era berean, Sektore Publikoaren araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean oinarritu da, horren 17. artikulua –Administrazio Publikoetako kide anitzeko organoei aplikatzekoak– ezartzen baitu kide anitzeko organoek urrunetik egindako bilkuretan, kideak toki desberdinetan egon ahalko direla, betiere bide elektroniko bidez (halakotzat jotzen dira bide telefonikoak eta ikus-entzunezkoak) bermatzen bada kideen edo kideak ordeztzen dituzten pertsonen identitatea, kideen adierazpenen edukia, adierazpen horiek egiten diren unea, nahiz kideen arteko elkarreragitea eta interkomunikazioa denbora errealean, eta bilkurak irauten duen bitartean baliabideak izatea.

40/2015 Legearen artikulua horrek ez du oinarritzko izaerarik, baina bere aurreikuspenak ordeztu izateko aplikatu zaizkie toki erakundeak.

40/2015 Legearen 17. artikulua gai hori esanbidez arautzen duen araudirik ezean soilik aplikagarria bada ere, eta, tokiko araubidean, udalbatzek, salbuespen egoeretan bilkura telematikoak egin ahal izateko, aukera hori beren Udal Araudi Organikoan sartu behar duten arren, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen kasuan, egingarria izango litzateke Gobernu Batzordeak bere funtzionamendua –gai horri dagokionez– arautzea eta bilkura telematiko mistoak egitea, salbuespeneko kasuetan, arau hori bere estatutuetan eta, hala badagokio, bere Araudi Organikoan jasotzea aurreikusita (azken hori Mankomunitateak ez duen araugintza tresna da).

Mankomunitatearen estatutuetan jasotako aruari dagokionez, hain zuzen ere, estatutu horien 2. tituluko I.

permite celebrar sesiones de los plenos municipales y adoptar acuerdos a distancia por medios telemáticos y electrónicos, por entender que concurría una situación excepcional de grave riesgo colectivo por la pandemia de COVID.

Se ha amparado, asimismo, en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, que, en su Artículo 17, aplicable a los órganos colegiados de las distintas Administraciones Públicas, establece que en las sesiones que celebren los órganos colegiados a distancia, sus miembros podrán encontrarse en distintos lugares, siempre y cuando se asegure por medios electrónicos, considerándose también tales los telefónicos y audiovisuales, la identidad de los/as miembros o personas que los/as suplan, el contenido de sus manifestaciones, el momento en que éstas se produzcan, así como la interconectividad e intercomunicación entre ellos/as en tiempo real y la disponibilidad de los medios durante la sesión.

Este artículo de la Ley 40/2015, de no tiene carácter básico, pero sus previsiones son de aplicación subsidiaria a las Entidades Locales.

A pesar de que el Art. 17 de la Ley 40, es aplicable solo en defecto de norma que regule en concreto dicho aspecto y de que, en el régimen local, los plenos municipales, para celebrar sesiones telemáticas en situaciones ordinarias, deben incluir tal previsión en su Reglamento Orgánico Municipal, en el caso de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, sería factible que la Comisión de Gobierno regule su propio funcionamiento, en este aspecto, previendo la celebración de sesiones telemáticas mixtas, en supuestos excepcionales con la previsión de inclusión de dicha regulación en sus estatutos y, en su caso, en su Reglamento Orgánico, instrumento normativo del que la Mancomunidad no dispone.

Respecto a la regulación en los estatutos de la Mancomunidad, sería necesario proceder a modificar,



# DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea  
Mancomunidad Comarcal

kapitulua 2. atalean dagoen 2. azpiataleko 64. artikulua eta hurrengoak aldatu beharko liriateke, kideek bide telematikoz parte hartzeko aukera gehitzeko.

Estatutuak nahitaez aldatu edo, hala badagokio, Araudi Organikoa onartu behar delako premisarekin, azken hori onartu eta aplikatzen hasi arte, proposatzen zaio Gobernu Batzordeari aipatutako 17. artikuluan ezarritako moduan, onar dezan bilkura telematiko edo mistoei baliozkotasuna ematea, parte hartzeko eskubideari eta organo horren kideei parte hartzea –bestela, ezinezkoa– ahalbidetzen eta errazago egiten dieten bitartekoen erabilerari lotuz, Batzordeko kide batek era telematikoan parte hartzea justifikatzen duten inguruabarrak eta justifikatzeko modua zehaztuta.

Azaldutakoa dela eta, honako hau ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Onartu egiten da Gobernu Batzordeko kideek bide telematikoz parte hartzea organo horren bilkuretan, salbuespen gisa edo ohiz kanpo, aurrez aurre parte hartzea eragozten dieten inguruabarrak daudenean; Mankomunitateari posta elektronikoz eta bilkura egin aurretik jakinaraziko zaion erantzukizunpeko adierazpenaren bidez justifikatuko dira inguruabar horiek.

Aurrez aurre parte hartzea eragozten duten inguruabartzat jotzen dira: gaixotasuna, ezusteko egoerak eta antzekoak.

BIGARRENA.- Deialdietan bertan txertatuko da bilkuran modu telematikoan sartzea ahalbidetzen duen esteka, eta lotura horrek denbora errealean elkarreragiteari eta interkomunikazioari buruzko baldintzak beteko ditu, 40/2015 Legearen 17. artikulua eskatzen duen moduan.

HIRUGARRENA.- Aldaketa bat bultzatuko da Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen estatutuetan, horiek aipatu 17. artikuluan xedatutakoaren arabera egokitzeko

en concreto sus Artículos 64 y siguientes de la subsección 2ª, sección 2ª, capítulo I del Título 2º de los referidos estatutos para incluir la previsión de asistencia telemática de sus miembros.

Con la premisa de la necesaria modificación de estatutos o, en su caso, de aprobación del Reglamento Orgánico y hasta que la misma resulte aprobada y de aplicación, se propone a la Comisión de Gobierno que, en los términos del citado Artículo 17, apruebe dar validez a las sesiones telemáticas o mixtas, relacionándolo con el derecho de participación y con la utilización de medios que permitan y faciliten la participación de miembros de este órgano que, de otro modo, no podrían asistir, definiendo las circunstancias en las que un/una miembro de la Junta pueda asistir telemáticamente y su justificación.

Por lo expuesto, se ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar la participación telemática de los/as miembros de la Comisión de Gobierno, en las sesiones de este órgano, con carácter excepcional o extraordinario, cuando concurren circunstancias que impidan su participación de forma presencial, justificando dichas circunstancias mediante una declaración responsable notificada a la Mancomunidad, a través de correo electrónico y de forma previa a la celebración de la sesión.

Se consideran circunstancias que impiden la asistencia presencial, supuestos de enfermedad, situaciones imprevistas o supuestos asimilables.

SEGUNDO.- Incluir en las convocatorias el enlace que permita la conexión telemática a la sesión, que cumplirá los requisitos de interconectividad e intercomunicación en tiempo real que exige el Art. 17 de la Ley 40/2015.

TERCERO.- Promover la modificación de los estatutos de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, para su adaptación a lo dispuesto en el citado Art. 17, en



# DEBABARRENA

Eskualdeko Mankomunitatea  
Mancomunidad Comarcal

eta bilkurak ohiko eran urrutitik parte hartzen duten kideekin egitea arautzeko.

LAUGARRENA.- Erabaki honek onartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak, harik eta Gobernu Batzordeak ohiko izaeraz egingo dituen bilkura telematikoen arauketa jasotzen duen estatutuen aldaketa indarrean jarri arte.

BOSGARRENA.- Erabaki hau gardentasun atalean argitaratuko da, guztiek jakin dezaten.

Eta hau guztia ziurtatzen da, beharrezko ondorioetarako eta presidente jaunaren oniritziarekin, Eibarren, 2023ko otsailaren 3an.

orden a regular, con carácter ordinario, la celebración de sesiones con participación a distancia de sus miembros.

CUARTO.- En presente acuerdo surtirá efecto desde su aprobación y hasta la entrada en vigor de la modificación de los estatutos que incluya la regulación de las sesiones telemáticas, con carácter ordinario, de la Comisión de Gobierno.

QUINTO.- Publicar el presente acuerdo en transparencia.

Lo que se certifica a los efectos oportunos, con el visto bueno del Presidente, en Eibar, a 3 de febrero de 2023.

VºBº

EL PRESIDENTE  
Iosu Arraiz Aramburu

LA SECRETARIA  
Raquel Olaizola Cortina